

Eskerrik asko

JEXUXMARI ZALAKAIN



BERANDU samar baina ez dut aukerarik galdu nahi. «Borroka berri on» esanaz agurtu nuen 1992a. Eskerrik askoka, hasi nahi dut 1993a. Borroka berri on asko egin delako eskerrik asko emanez alegia. UPV/EHUko gertakizun eta gertakizun ondo-koaz ari naiz.

Eskerrik asko, beraz, helburua mantentzeagatik despeditu izateak beldurtu ez dituztenei. Eskerrik asko bereziki, Joserra, Koldo eta Josu lankideei, 'esker gaiztoko' Unibertsitate gelatan entzerraturik segitzen duzuelako.

Eskerrik asko, aldi berean borroka hori itzal ez dadin laguntza eta arnasa ematen segitzen duzuen guztioi. Lehenik eta behin, Erresistentzi Kutxa sostengatzen duzenoi, bizirauteko modurik ematen diguzuelako. Eskerrik asko, nola ez!, Laguntza Batzordeko, elkartasunik badela erakutsi diguzuelako. Eskerrik asko, Gabonetako itxialdian, bisitaxo bat eginez gureganaino iritsi zaretelako. Eskerrik asko, Unibertsitate honen zabarkeria eta bidegabekeriak oro salatzeke lerro estimagarriak bidaltzen dituzuelako egunkarietara.

Eskerrik asko Kurkudiko langileei, zenbait janari eta edari goxo bidaltzen dituzuelako. Eskerrik asko, kafetegi txiki mutil tantai horri, bere tresneria uzteko arazorik izan ez duzulako. Eskerrik asko ardo, gazta, arkume, txipiroi, barraskilo, izokin, bonboi, trufa, tarta, etab. dastatzeko parada eman (eta ematen) diguzuelako.

Eskerrik asko ikasle porrokatuoi, laguntza emateko beti prest azaldu (eta azaltzen) zaretelako. Eskerrik asko, hitzasperturik egiteko bederen, beti prest agertzen zaretenoi.

Eskerrik asko, azkenik, zuoi, oraindik lotan egon arren, inoiz esnatuko zaretelako, berriro elkarrekin helburura jotzeko. Ordurako eta alde zuretik nire (gure) eskerrik beroenak.

Euskal
vaporwarea

MIKEL ARAMENDI



INFORMATIKAREN mundutxoan itzala baduen zital zorrotz batek asmatu eta plazaratu berria du, ingelesez noski, *vaporware* hitza, lehenetik usualak diren *hardware*, *software*, *firmware*, *shareware* eta gainerakoen eredu. Arrakastatsua ateraldia: modako hitza bihurtu da. Seguruen, lehenetik askotxorengan nola edo hala bazelako asmatzaileak hitzari eman dion edukinaren zantzuna: informatikaren munduan gero eta maizago gertatzen ari da halako edo bestelako produktuen iragarpenak argitaratzea, hari buruzko aurrikuspenak plazaratzea, bestekeiko konparazioak eta ondorioen ebaluazioak egitea... baina azkenean delako produktua ez da sekula plazaratzen edota, agertzen bada, iragarritakoarekin zerikusi gutxi eta batere ez du. Horixe deitzen zaio *vaporware*. Gure amona zenak, seguramente ezezekeo pesta deituko zion.

Hitza asmaberria den arren edukina batera berria ez bait da. Ezta ere informatikaren esparruko soilik. Euskal Herriko iharduera publikoaren osakaitz funtsezkoetakoa da, esate baterako, *vaporware*. Zenbat eta zenbat egitasmo ari dira gure begien aurretik pasatzen, ponpa osoz plazaratu ondoren gehienera maketa hutsa izatera baino heldu ez direnak? Azkenekoa, oraingoz, nire zerréndatxo apailean, Zornotzako General Motors-arena. Eta, haren aurretik, berdintsuak, dozenaka. *Vaporware* ezezik *kiratsware* ere bihurtzen ari da gure hau.

Ez al zen bada euskaldun prestuen eredu eta ezaugarria «lehendabizi, egin; gero, esan»?


●egin

Langabeziaren
urtea

Europar, ez da lotu hainbat gorabeherarekin egungo ekonomi egiturak dakarren krisiari buelta ematea. Aldaketak, formula berriak aplikatzeko saioak daude, eta horiek lokatz hauek ekarri dituzten politika neoliberalen bultzatzaile izandako Gobernuen «autokritika» maila bat aditzera ematen dute.

Testuinguru honetan, Europa Batuen proiektuak ez du abiatzea lotu; 1992. urteak hori geldiaraztea ekarri du. Europako Ekialdeko gertaerak, konpontzen asmatu izan ez diren elementu berriak erantsi dituzte. Europako Gobernuak nahastuta daude.

Hurbilago, Gasteizen, Ardanzen Exekutiboak, polizi arazoetan izan ezik bizitza politikotik at dagoenak, antzeko inertzia bati eusten dio. Azkar omen doazen ba-



OROZ / DIARIO DE NAVARRA

karrak enpresen birmoldaketak eta horietako askori buruzko krisi iragarpenak dira. Proposamen errealek izango lituzkeen erantzun sendo bat eman beharko litzatekeenean ezin da errealtatearekin topo egin ahala aienatzen diren enplegu berriak eta industri instalakuntzak sortzeko promesekin ibili. Gizarteak beste zerbait eskatzen du.

EDITORIALA

●DEIA

Irakiarren
desafioei buruzko
teoriak

Teoria zabalduek dioe-

nez, Saddam Huseinek Etxe Zuriko trantsizio aldia erabili nahi du Bill Clinton probatzeke. Ez dira falta, ordea, duela bi urtetik Mendebaldeak ezarri dion blokatzea haustearren Irakeko diktadoreak nazioarteko krisi bat eragin nahi duela—nahiz eta horren amaiera Estatu kolpe bat izan litekeen— pentsatzen duten beste behatzaile batzuk. Baina zalantza bat gelditzen da, hain zuzen irakiarren mugimendu hauen esanahia Huseinek amerikar Administrazio berri batekin benetan bakea bilatzen duela ote den edo, bestela, Huseinen kontra George Bushen hartutako jarrera irmoa bertan behera utz dezan Clinton

konbentzitzen saiatzea beste asmorik ez izatea.

Clintonen baieztatu egin du bukaeraraino bultzatuko duela aliatuen erabakia, baina horrek ez du kentzen Irakeko oposizioa, edo horren zati bat behintzat, beldurrak egotea iparramerikar lehendakari berriaren kezka Irakeko egungo erregimenarekiko txikia izan baitaiteke, are gehiago, batzuen iritzia arabera, Etxe Zuria okupatuko duenaren aburuz Ekialde Erdiaren egonkortasunerako egun dagoen mehatxurik handiena Bagdadetik baino gehiago Teheranetik datorrenean.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Deba Garaiko
mankomunitateari
eginiko proposamena

Hondakinekiko konponbidea Administrazio zein hiritargoari dagokien arazo zaila bilakatu zaigu, epe luzerako konponbidea eskatzen duena, bestalde. Helburua heltzeko derrigorrezkoa zailgaririk urratsak egokiro ematea; honela hondakinak hastapenean gutxituz, bilketa bananduagaz eta birziklai edo berreskurapenagaz pentsa beharko dugu. Helbide horretarantz jada jo behar dugularik kontzientziario kanpainagaz, besteren artean.

Badirudi Deba Garaiko mankomunitateak guzti honetariko zerbait ahaztu duela. Epeleko zabortegei kontrol duna

egiteak —zioen— kontrolgabekoen desagerketa suposatuko zuen eta halere, —Epelekoa eginik— kontrolgabekoa hor diraute.

Honexegatik zuzentzen diogu Mankomunitateari eskaera hau:

1.-Kontrolgabeko zabortegeien —hiritarrak zein baserrigunekoak— zerrrenda osatzea, kasu bakoitzean erakar dezaketen arrisku edo kutsagarritasuna zehaztuz.

2.-Kontrolgabeko zabortegeien itxiera arriskutsuenetatik hasirik, ondoren sakonki garbituaz Gune Berdeak bilakatzeko.

3.-Zabortegei hauen kutsagarritasunaren ondorioen berri informazio zabal eman, kontutan harturik badaudela hauen artean arreta berezia eskatzen dutenak: Besaideko zabortegeia Lindanea

dela eta, Angiozarkoa altzairu hautsagatik, eta AKEI ondoko zabortegeia begibistakoa den kutsadura mailagatik.

4.-Naturaguneetan kokaturiko zabortegei kontrolgabekoen deuseztapena, kontutan harturik gune garden horiek erabat kutsatzen eta zakartzen dituztela, adibiderako hor dago Urbiakoa.

5.-Gai inerte erabilgarrien berrerabileran obratan proposatzen dugu hementik, gainontzekoak ezinean, Epelearen eraman daitezkeelarik.

Proposamen honen helburua, zuei luzatzen dizueguna, hondakinen konponbide ekologikoarena da eta kontutan hartuko duzuelakoan, besterik gabe.

EKI

Arrasate (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA

Joxemiel
Zumalabe

«Maite hitunen landare eta loreak hazi daitezen», ekainak hiru batetan kanta huena burura zuzen; haize lehorrak itzali hau hi kandelatxo bat bait hintzen, EGUNKARIAK emango ahal dik argia nahikoa hemen.

JOXEMARI OSTOLAZA

'XALBARDIN'

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Zuzendaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IÑAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIEN ETXEHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 /

Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo /

☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila,

/ 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11